

Bidebieta

Txanpontxo parrandarako prest

Iritsi dira auzoetako jaiak. Astebukaera honetan, Bidebietako Txanpontxoek etxafuegoa jaurtikiko dute, Donostiako auzoetako udako festeei ekiteko.

Ziur asko, kontzertuek erakarriko dute Bidebietara jende gehien. Alde batetik, ostiralean, Obus heavy talde espainiarra ariko da, The Bon Scott Band eta Red Wine taldeekin batera. Beste-

tik, larunbatean etxeko taldeen txanda izango da: Sutura (Trintxerpe), Germen (Hernani), Inibe (Antigua) eta Gintoxic (Loiola). Emanaldiok iazkoak bezain arrakastatsuak izatea espero dute jai batzordekoek: "Joan den urtean Baron Rojo aritu zen Bidebietan eta, euria gogotik egin zuen arren, sekulako jendetza elkartzeko".

Haur jolasak, danborrada...

Duela egun gutxi bukatu dituzte eliza ondoko parkeko lanak. Eta parkea zabalik dagoe-

la aprobetxatuz, haur jolasak egingo dira bertan, larunbat arratsaldean. Haur jolasen ondoren, danborradaren txanda iritsiko da. Urtero bezala, 40 bat lagun auzoko kaleetan ibiliko dira danborra jo eta jo.

Kirolek ere tartea izango du-

te Bidebietako festetan. Igan- de goizean, krosa (bost kilometro eta erdi) egingo da eta arratsaldean herri kirolak izango ditugu; Zeanuriko bi taldek motozerraz enborrak moztuko dituzte. Ondo pasa jaietan!



Jai egitaraua

Ostirala 30

17.30 Buruhandiak eta trikitilariak

18.00 Haur jolasak, Allende parkean

19.30 Txokolate jatea

20.00 "Bajarse al moro II" obra, Kontadores gaztegunean. Herri afaria, Castilla taberna parean

21.30 Mus txapelketa, Guardaplatan eta Txikin. Bon Scott Band, Obus eta Red Wine taldeen kontzertua, institutu ondoko futbol zelaietan

22.00 Dantza txapelketa, frontoian

Larunbata 31

12.00 Eriz Magoaren agerraldia

12.00 Erretiratuentzako hamaiketako, zahar etxean

16.00 Tute txapelketa, Guardaplatan eta Txiki tabernetan

16.00 Haur jolasak, eliza ondoko parkean

17.30 Buruhandiak, erraldoiak eta dultzainariak

18.00 Danborrada

20.00 Bakarrizketak, Kontadores gaztegunean

21.00 Sutura, Germen, Inibe eta Gintoxic taldeen kontzertua, frontoian

23.30 Berbena eta zezensuzkoa

Igandea 1

10.30 Krosa

10.30 Artisautza azoka, Eroski aurrean



KAFETEGIA

Zedro plaza 2
Tel.: 943-39 99 52


Bidebieta Institutua

Serapio Mujika k., 31. Tf.:943390240 DONOSTIA
www.bidebieta.com

Berri-berriak:

- Zikloetarako batxilergoa, 1. eta 2. Kurtsoak
- Informatika zikloa euskaraz.
- Merkataritza zikloa+merkataritza elektronikoa

- Ingles multimedia
- Eskaintza osagarriak: ordenailuen bideko diseinua, EGA, ikas gela...
- Ingurumen Kimika (goi mailakoa)
- Informatika (goi mailakoa)
- Laborategia (erdi mailakoa)
- Merkataritza (erdi mailakoa)



Euskaraz eta gaztelaniaz